

Bakarrik ez. Familia gurasobakarren elkarte

Datorren urtean 10. urteurrena beteko duen elkarte hau, indarra galduz doa urteak joan ahala. Horregatik, emakume eta gizonak animatzera eta parte hartzera gonbidatzen dituzte.



- Zein urtetan sortu zen taldea?

1999ko otsailaren 8an sortu ginen, nahiz eta aurretik ere elkartzen ginen.

- Zenbat kide zarete?

Gaur egun lau lagun elkartzen gara, baina momentu batzuetan 9 lagun izatera ere heldu gara. Jendea elkartera etortzen da eta apurka-apurka lagatzen doa, bikotekide berria ezagutzean, adibidez. Orain dela urte batzuk bilera egin genuen, deialdia zabaldu genuen eta jendea animatuko zela uste genuen, baina oso jende gutxi etorri zen. Gure egoera berdinean jende asko dago, baina agian lotsatu egiten dira. Beste batzuek, dirua emango diogula uste dute, beste

batzuk euren arazo edo egoerari buruz berba egitera behartuko ditugula uste dute..., baina hori ez da horrela.

- Zeintzuk dira zuen helburuak?

Gure egoeran dauden pertsona gehiago ezagutu nahi ditugu, seme-alabei buruz berba egin, txangoak egin, sukaldaritza ikasi, kafea hartu, erosketak egin... daukagun denbora konpartitu nahi dugu. Beste herri batzuetan, holako elkarteek indar gehiago dute. Bilbon, adibidez, abokatuekin eta guzti, eta beste batzuetan, Ondarrun, adibidez, pertsona bakarra dago elkarteetan.

- Zein maiztasunekin biltzen zarete eta non?

Astean behin biltzen gara, marti-

tzenetan. Lehen Ongaraiko Gure Etxean biltzen ginen, baina orain ez dugu lokalik. Hala eta guztiz ere, bilerak egiteko Emakumearen Topalekura jo dezakegu.

- Urtean zeintzuk ekitaldi egiten dituzue?

Ez daukagu diru-laguntzarik eta horrela zaila da gauzak antolatzea. Hala ere, urtero inauterietan elkartu eta irteten gara. Urtero ere, Igorreko emakumearen topalekutik deitzen digute euren ekintzen berri emateko eta parte hartzen animatzeko.

- Zuekin harremanetan jartzeko?

Mertxeri deitu, 943176039 telefono zenbakira.

Dorleta Vidal

SAN ANTONIO

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaiaeta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

GARAGARDOGEGIA

CERVECERIA
ÑHCH

ZYTik

OTARTEKO eta
INPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
berezitasuna